

DIRU-SARRERAK

Gure proiektuak hasieran inbertsio handia behar izango duenez, zuhurtziaz zenbatetsi behar izan dugu zeintzuk izango diren hasierako inbertsio horretara bideratutako diru-sarrerak eskuratzeko bideak.

Proiektua finantziatzeko eta nahi dugun **Sozietate mugatuko** enpresa aurrera eramateko, gure lehenengo ideia partaide guztion artean diru kantitate zehatz baten ekarpena egitea da enpresa diru kantitate optimo batera ailegatu ahal izateko. Hasteko, taldekide bakoitzak haien **aurrezkietatik** hartutako 40.000 € erabiliko ditugu (guztira 200.000 €) behar izango dugun kostuen % 58,8a asetzeko.

Gure kostuen zenbateko osoari aurre egiteko, hau da, geratzen zaizkigun kostuen %41,2a lortzeko, ezinbestekotzat hartu dugu beste bide batzuk erabiltzea: diru-laguntzak eskatzea eta maileguak eskatzea, hain zuzen ere.



Alde batetik, lortu ditzakegun **diru laguntzak** aztertuko ditugu. Lehenengo, **Zamudio Udala** establezimenduei eta jatetxeei zuzendutako premiazko laguntzak lortzen saiatuko gara. Diru laguntza hauen helburua da Zamudio udalerriko ostalaritzari eta jatetxeei egonkortasun ekonomikoa ematea. Horretaz aparte, **Eusko Jaurlaritzak** eskaintzen duen beste laguntza bat bereganatzeko asmoa dugu. Ekintzaile proiektuaren barnean dago kokatuta eta plan hau ekintzailetza sustatzera bideratuta dago. Eusko jaurlaritzako laguntza honetatik gehienez 30.000 € lortu ahal izango ditugunez, diru laguntzetatik guztira 50.000 € lortzeko nahia dugu (kostuen % 14,7).


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Amaitzeko, kostu osoaren %26,5 hori lortzeko, hau da, 90.100€ **Kutxabank** bankuarekin hitz egin dugu **mailegu** baten bidez diru kantitate hori lortzeko. Mailegu honek %5ko interes tasa izatea lortu dugu eta 5 urtetan zehar diru hori bueltatu beharko dugu.

Behin hasierako inbertsioa eginda eta egin genuen merkatuko ikerketaren ondorioz lortutako informazioaz baliatuz, gure eguneroko zerbitzua zenbat balio egingo duen zehaztu dugu.



Inkestatuen %58,6a 7€ edo gehiago

ordaintzeko prest egongo lirateke, datu hauen ondorioz, eta kontuan izanda eskainiko dugun produktua kalitate handiko izango dela, erabaki dugu eguneroko menuko prezioa **10.99 €**-tan finkatzea. Bistan astero 5 egunetan zehar diru kantitate handia dirudi arren, kontuan izan behar dugu gure bezeroak errenta maila ertain-handikoak izango direla, gehienek enpresa handietan lan egingo baitute.



Eguneroko menuaz aparte, urtean zehar egun berezietan **eskaintza berezia** egitea erabaki dugu. Hala nola, gabonetan (abenduaren 24an, 25ean eta 31ean eta urtarrilaren 1ean, eta 6an) familiarekin ospatzeko aukera ezinhobea izango litzateke, gure plater bereziak dastatzeko. Gutxi gora behera, plater bakoitzak 10€-ko prezioa izango du. Eta bide

honetatik aparteko diru sarrerak lortuko ditugu proiektuaren bideragarritasunean laguntzeko.

Argi daukagu, lehenengo hilabeteak nahiko zailak eta neketsuak izango direla eta horrek diru sarrerak beste hilabetetan baino urriagoak izatea suposatuko du. Hala ere, lau hilabete inguru pasata, gure jatetxea pixkanaka pixkanaka nabarmenduko da, ahalik eta esfortzu gehien jarriko baitugu.

Hurrengo hilabetetako sarrerak eta kostuen estimazioen arabera, egun bakoitzeko salmenten ondorioz **4.000€ inguru fakturatzea** nahiko genuke, hilabetero beraz 124.000 €.

Kostuei erreparatuz, hilabeteko kostu osoak 85.000 € inguru izango direla aurreikusi dugu. Hortaz, 39.000 € etekina lortzea espero dugu.